

URETAKOAK ETA BASAMORTUAK

Uretako bedarrak beti ibiltzen dira uraren gainean. Eta landarrak eta lora- autsak bildur aundia izaten dautsoe urari. Orregaitik, loreak uraren gainera urten bear dau beti, orretarako bere laztoa luzatuta.

Ur-landarak aizez beterik dagozan uger-gai batzuk sortzen dabez barruan.

"Errege garaitzaren lorea" Bitori Erregiñeari eskiñia da, berogei zm.'ko zabalerea dauka. Loratzen dan egunean zuria izaten da, gero larrosa-antzekoa, gero urpera sartzen da aziak eldu dakiozan.

Buda'ri India'n egiten jakozan irudietan, uso-bedar baten gainean agertzen da. Ejiptoarrak, oster, lora au Iris jainkoak ekarria dala esaten eben eta ortik sortzen ziran garauak jaten ebezanak, gomutamena galtzen eben eta euren aberria aitzu. Jazintoa urdin ederdun lorea da eta Ameriketara naiz Asia'n ezin ikusi dabe, ibai eta erreka guztiak beteten dauzalako eta urari joatean galazo. Eltxoak be bere sarean itita geratzen dira.

Zi loradunak eta iturri-bedarrak, uretan naiz lurrean bizi leitekez, bardin irribedarra be. Oneik epaillean zingiretan eta lur buztietan oial eder bat egi ten dabe.

líasamortuko lanclarrak lodiak izaten dira eta edozein bazterretan dagoz, Siberian, Mexiko'n, Imalaia'n eta Japon en. Olako landarakaz egiña da Monako'ko lorategi bat, oso ezaguna. Lora-mota asko daukaz olakoak.

Landara oneik bizi izateko argi bizia, euri urria eta lurruna bear dabez.

Landarea bera argimutil baten antzekoa izaten da eta lorea larrosa biribillaren antzekoa.

Ego-Afrika'n "arri biziak" deritzen lorak arrien artean kikilduta agertzen dira sei illebeteko legortean eta burua arearen azpira sartzen

dabe, eta euri-tantak agertu arte ez dabe urteten.

India'n pagoda-arteko saaguaro edo argizaia esaten jake eta amabi tone'ko astuna eukitera eltzen da. Onen aleakaz edari gozoak egiten dabez eta aziak egaztiak loditzeko dira egokiak.

Mejiko'n "pulke" ladareagaz izen ori daukan edaria egiten da eta zaragietan irakin-ondoren, edan ezker, laster ekarten dautse mozkorra.

Beste erri batzuk "Su jainkoaren kalabaza-landarea" gurtu egiten dabe, Jainkoari eskiñia dan kaktus bat da eta diñoie au jaten dabenak brua galduta geratzen dirala. Onen billa asagora joaten dira eta berrogei egun baiño geiagoko bidaldiak egiten dabez. Bide orretan andrak ondo jantzita joan bear dabe, eskuetan errosario batzuk daroezala eta euren pekatuak autoritu bear dabez. Errosarioaren garau bakoitxak pekatu bat gogoratzen dau. Iñori ez jatorko burura olakorik, etxeetan apaingarri lez kaktus'ak ikusten doguzan.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua



Ori-motak.